


LUKENE
SUGEGORRI TXIRENE




Lukene Sugegorria


1




**Lukene sugerri bat da. Oso atsegina da.
Berak ez die umeei inoiz koska egin barazkijalea da-eta.
Belarra, zuhaitzen hostoak, loreak, barazkiak eta fruituak
jaten ditu.**




**Goizetan, belarra jatea gustatzen zaio,
orduan baitago berde, heze eta urtsu.**




**Azak eta urazak bere gustukoak dira;
ez, ordea, azalorea.**



**Udaberrian zuhaitzen hostoak nahiago izaten ditu,
bigun eta fresko daudelako.**



**Marrubiak ditu udako fruiturik gogokoena;
negukoak, aldiz, sagarrak eta laranja.**



**Egunero loreak gosaltzen ditu.
Gaur, gizarajoa, gaixorik dago
jasmin gehiegi jan duelako.**

Lukene sugedorri txirene

1. Egia ala gezurra



LUKENE:

	BAI	EZ
Neska bat da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Umeei koska egiten die	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Barazkijalea da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Azalorea gustatzen zaio	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ez zaio uraza gustatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Udazkenean, hostoak fresko eta bigun daude	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Berak marrubiak ditu gogokoan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Neguan, sagarrak eta laranjak gustatzen zaizkio	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egunero patatak gosaltzen ditu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gaur oso pozik dago	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



2. Margotu



Loreak	Hostoak	Uraza	Aza	Azalorea
Marrubiak	Laranjak	Sagarrak	Jasmina	Belarra



3. Ipuina idatzi



Asmatu

Lukene  bat da . Ez die  koska egiten.

Belarra, zuhaitz hostoak, ,  eta  jaten ditu.

Goizetan,  jatea gustatzen zaio.

Udaberrian  nahiago izaten ditu.

 ditu udako fruiturik gogokoenak eta  eta  negurako.

 gosaltzen ditu egunero. Gaur  dago

 gehiegi jan duelako.

Idatzi:

Lukene _____ bat da. Ez die _____ koska egiten.

Belarra, zuhaitz hostoak, _____, _____ eta _____

jaten ditu.

Goizetan, _____ jatea gustatzen zaio. Udaberrian _____ nahiago ditu.

_____ ditu udako fruiturik gogokoenak _____ eta

_____ negurako.

_____ gosaltzen ditu egunero. Gaur _____ dago

_____ gehiegi jan duelako.



4. Irakurri ipuina eta jarri zerrenda batean aurkitzen dituzun...



Fruituak


Barazkiak



5. Idatz itzazu ezagutzen dituzun fruitu guztien izenak:



Fruituak



4. Egin ezazu mazedonia baten errezeta:



Erabili hemen agertzen diren hitz guztiak

Hartu, moztu, txikitu, zatitu, bota, nahastu, zukua atera
Bola, koilara, labana, zukugailua, azukrea, zukua
Laranja, anana, banana, marrubiak, madariak, mahatsak,
meloia, muxikak eta sagarrak



Errezeta

Osagaiak	Pausuak



Emaitzaren marrazkia:



5. ZER JATEN DUGU...

Egin ezazu poster bat zure lagunarekin.

Erabili daukazuen material guztia: aldizkariak, supermerkatuetako liburuxkak, zuen marrazkiak, etab.

Udaberrian Laranjak Madariak Sagarrak Marrubiak	Udan Marrubiak Gereziak Melokotoiak Meloiak Sandiak Abrikotak Paraguaiak Aranak
Udazkenean Gaztainak Urrak Intxaurreak Sagarrak Madariak Granadak Mandarinak Mahatsak	Neguan Laranjak Sagarrak Madariak Mahatsak













Kontrol-orria

Lukene sugedorri txirene

1. Egia ala gezurra

LUKENE:	BAI	EZ
Neska bat da		x
Umeei koska egiten die		x
Barazkijalea da	x	
Azalorea gustatzen zaio		x
Ez zaio uraza gustatzen		x
Udazkenean, hostoak fresko eta bigun daude		x
Berak marrubiak ditu gogokoan	x	
Neguan, sagarrak eta laranjak gustatzen zaizkio	x	
Egunero patatak gosaltzen ditu		x
Gaur oso pozik dago		x

2. Margotu

				
Loreak	Hostoak	Uraza	Aza	Azalorea
				
Marrubiak	Laranjak	Sagarrak	Jasmina	Belarra



3. Ipuina idatzi

Idatzi:

Lukene **sugegorri** bat da. Ez die **umeei** koska egiten. Belarra, zuhaitz hostoak, **loreak**, **barazkiak** eta **fruituak** jaten ditu.

Goizetan, **belarra** jatea gustatzen zaio. Udaberrian **hostoak** nahiago izaten ditu.

Marrubiak ditu udako fruiturik gogokoena **laranjak** eta **sagarrak** negurako.

Loreak gosaltzen ditu egunero. Gaur **gaixorik** dago **jasmin** gehiegi jan duelako.



4. Irakurri ipuina eta jarri zerrenda batean aurkitzen dituzun...

Fruituak	Barazkiak
<p>_ marrubiak _____</p> <p>_ sagarrak _____</p> <p>_ laranjak _____</p>	<p>_ azak _____</p> <p>_ urazak _____</p> <p>_ azaloreak _____</p>



5. Idatz itzazu ezagutzen dituzun fruitu guztien izenak:

Fruituak:

Madaria, Meloia, Sandia, Arana, Mahatsa...

6. Egin ezazu mazedonia baten errezeta:

Errezeta

Osagaiak	Pausuak
<p>Madariak Marrubiak Laranjak Mahatsak Sagarrak Melokotoiak</p>	<p>Garbitu eskuak Hartu fruituak eta azala kendu Txikitu madariak eta bota ontzira Txikitu sagarrak eta bota Txikitu melokotoiak eta bota Erdibitu mahatsak eta ontzira bota Erdibitu marrubiak eta bota Laranjen zukua atera eta gainean bota Dastatu mazedonia eta azukrea falta bazaio, zure gustura bota. On egin!!!</p>



Emaizaren marrazkia:



7. ZER JATEN DUGU...

Udaberrian Laranja Madariak Sagarrak Marrubiak	Udan Marrubiak Gereziak Melokotoiak Meloiak Sandiak Abrikotak Paraguaiak Aranak
Udazkenean Gaztainak Urrak Intxaurreak Sagarrak Madariak Granadak Mandarinak Mahatsak	Neguan Laranja Sagarrak Madariak Mahatsak